

## Zergatik mintzatzin gara arrazakeriaz, xenofobiaz eta intolerantziaz?

### Arrazakeriak

mundua “arrazatan” zatitzen du eta zenbait talde etniko norberaren talde etnikoaren azpitik daudela dio.

### Xenofobiak

beste nazio eta kulturetako pertsonetik eta balio desberdinak dituzten pertsonetik etsaitasuna dakar.

### Intolerantzia

desberdinak diren edo beste modu batera pentsatzen duten pertsonetik eta beren duintasun eta eskubideekiko arbuioa edo mespretxua da.



Arraza bakar bat dago, giza arraza.

Ez gara arrazista jaiotzen, baina arrazista izaten ikasten dugu.

Jokabide arrazista, xenofobo eta intoleranteek pertsonen duintasuna kaltetzen dute.

## Nola ekidin arrazakeria, xenofobia eta intolerantzia eskolan?

**Eskolak kulturen arteko bizikidetzaz sustatzen** duten espazio inklusibo bihurtuz, balio demokratikoekin eta komunitatearen parte-hartzearekin.

**Irakasleak eta ikasleak** trebatuz giza egoeraren aniztasunaren errespetuan eta giza eskubideen defentsan.

**Aniztasuna aberastasun-aukera** gisa ulertuz.

## Nola antzeman arrazakeriarekin, xenofobiarekin edo intolerantziarekin loturiko arazoak?

Ikastetxeetan badira alarmak abiarazi behar dituzten hainbat adierazle:

Biktima berandu iristen da edo ez da ikastetxera joaten.	Biktimak ikaskideen edo ikastetxeko langileen irainak sufritzen ditu.	Gutxiengo taldeetako ikasleak tartean dituzten liskarrak daude.
Eduki arrazista, xenofoboa edo gorroto-seinaleak dituzten pintadak daude.	Zenbait ikasleek estetika oldarkorra edo ideologia antidemokratikoak dituzte edo gorroto-sinboloak daramatzate.	

## Nola jokatu honelako arazo baten aurrean?

### Gertatzen ari den momentuan



- Berehala esku hartu. Adingabeok banandu.
- Lasaitasunez eta errespetuz jokatu guztiekin, lekukoekin ere bai.
- Ez ezikusiarrena egin: adingabeek ezin dute arazoa konpondu pertsona heldu baten esku hartzerik gabe.
- Martxan jarri ikastetxeko jazarpenen eta indarkeriaren aurkako protokoloak.
- Legez kanpoko egoera bat gertatu bada, armarik edo gorrotoak bultzatutako indarkeria-mehatxurik egon bada, hots egin poliziarri.

### Biktimarekin



- Ikaslearen konfiantza jarri eta saihestu bere erruduntasuna salatzen duten galderak.
- Azaldu argitasunez ikasleari eta bere familiari eman beharreko pausoak.
- Ikaskide lagun babesle bat oso lagungarria izan liteke.

### Ikasleekin



- Azal iezaiezu ikastetxeak hartuko dituen neurriak.
- Azal iezaiezu batek ezin duela besteek sufritzen dituzten erasoetatik kanpo geratu.

### Erasotzaileekin



- Hartutako neurriek honako helburuak izango dituzte: norberaren ekintzen erantzukizuna hartzea, heztea eta neurriko zigorrak ezartzea.
- Ikasleak jakin behar du ongi etorria dela, bere ekintzak ez diren arren.

# Jazarpen- eta intolerantzia-gertakariak eta gertakari arrazista eta xenofoboen ondorioak dituzte

Jazarpenaren ondorioz biktimek sufritzen dituzten ondorioak bizitza osoan zehar luza litezke.

Ondorioak familiara eta komunitatera zabaltzen dira. Kalteak agertu ez izanak ez du esan nahi kalterik ez dagoenik.

Gertakari bakar bat nahikoa da biktima sufriarazteko.

Laguntza egokiak jasandako traumaren ondorioak hobeto dituzte.

IKASGELETAN ARRAZAKERIA, XENOFOBIA ETA ANTZEKO INTOLERANTZIA MODUAK EKIDITEKO ETA ANTZEMATEKO TREBAKUNTZA Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioko Immigrazio eta Emigrazioarako Idazkaritza Nagusiaren proiektua da, Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Espainiako Behatokiaren (OBERAXE) bitartez antolatuta dena, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko Hezkuntza Berrikuntzarako eta Ikerketarako Zentro Nazionalarekin (CNIIE) lankidetzan. Proiektuak Progress 2007-2013 Enplegurako eta Gizarte Elkartasunerako Erkidegoko Programaren finantziakoa da.



NIFO: 270-15-110-X

# IKASGELETAN ARRAZAKERIA, xenofobia eta antzeko intolerantzia moduak ekiditeko eta antzemateko trebakuntza



Helburua da irakasleen eta hezkuntza-komunitatearen trebakuntza eta sentsibilizazioa areagotzea, etorkinen eta gutxiengo etnietako pertsonen irudi positiboa eta integrazioa bultzatuz.

## Gehiago jakiteko:

Ikastetxeetan arrazakeria, xenofobia eta antzeko intolerantzia moduak ekiditeko eta antzemateko laguntza-gida.

<http://explotacion.mtin.gob.es/oberaxe>

<http://www.mecd.gob.es/educacion-mecd/mc/convivencia-escolar/inicio.html>

